

Aiako harria natura-parkea ARDITURRI PARKETXEA OIARTZUN 2022



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN



OIELEKU, MAIRUEK ZAINDUTAKO LARREAK

Abiapuntua eta helmuga: **Kausoroko aparkalekua, Oiartzun**

Jarduera-mota: **ibilaldi gidatua**

Hartzaileak: **HH eta LH**

Iraupena: **3 ordu**

Prezioa: **5 € ikasleko**

DESKRIBAPENA

Ibilbide hau gauzatuz Aiako harria natura-parkeak eskaintzen dituen natura eta kultura baliabideak ezagutarazi eta hauenganako errespetua sustatu nahi da. Helburua jolastuz eta naturarekin disfrutatuz gai desberdinak lantzea da: ekosistemaren oinarritzko ezaguerak, flora eta fauna adierazgarriena, lurraldearen giza erabilpenak, monumentu megalitikoak (cromlech edo mairubaratzak) eta euskal mitologia.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Aiako harriko natura-parkeko paisaiak zirrargarriak dira. Edertasunaz gainera, badute, ordea, beste ezaugarri aipagarri bat: ondare naturalaren eta kulturalaren arteko lotura zatiezinaren berri ematen digute. Oieleku ingurua, Oiartzungo beste parte asko bezala, kultura-paisaia baten adibide garbi-garbia da. Lehenik eta behin, mendiko larreak ditugu, alderdi horretan abeltzaintzak izan duen eta oraindik duen garrantziaren adierazle. Belardietan zenbait mairu-baratze ikus daitezke, kondaira mitologiko askoren iturri izan direnak.